

Energia elektrikoa hornitzeko kontratuaren baldintza espezifikoak

TARIFA ETA PREZIOA

Tarifa: Precio estable

BEZEROAK aukeratutako tarifaren arabera, kontzeptu hauek osatuko dute prezioa:

- **KONTRATATUTAKO POTENTZIAREN TERMINOA:** Zenbatekoa kalkulatzeko, BEZEROAK kontratatutako potentzia (kW) bider hornitutako hil-kopurua egiten da. Ez dago kontsumoaren mende, eta une bakoitzean indarrean dauden bidesarien eta karguen kostua barnean hartzen du (*).

Prezioaren gaur egungo balioa, karguak eta bidesariak barne, hau da:

- Sarbide-tarifa 2.0TD

- P1 — 45,70 €/kW·urtean (58,13 €/kW·urtean zergak barne).
- P2 — 18,73 €/kW·urtean (23,82 €/kW·urtean zergak barne).

- **KONTSUMITUTAKO ENERGIAREN TERMINOA (KET):** Zenbatekoa kalkulatzeko, fakturazio-aldian kontsumitutako energia (kWh) BEZEROAREKIN biderkatu behar da une bakoitzean indarrean dauden bidesari eta karguen (*) eta MERKATARITZAILEAK finkatutako energiaren kostuaren baturaren emaitzarekin.

Prezioaren gaur egungo balioa, karguak eta bidesariak barne, hau da:

- Sarbide-tarifa 2.0TD

- 0,128000 €/kWh (0,162798 €/kWh zergak barne).

- (*) **Bidesariak eta karguak** aldizka eguneratzen dituzte Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) —urtarrilaren 15eko 3/2020 zirkularra, elektrizitatearen garraioaren eta banaketaren bidesariak kalkulatzeko metodologia ezartzen duena, oinarri hartuta— eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak —martxoaren 9ko 148/2021 errege-dekretua, sistema elektrikoaren karguak kalkulatzeko metodologiari buruzkoa, oinarri hartuta—. Gaur egun, hauek aplikatzen dira: MLBNren 2021eko martxoaren 18ko ebazpena, garraio- eta banaketa-sareetarako sarbide-sarien balioak ezartzen dituenak, eta, 2022ko abenduaren 31ra arte, 6/2022 Errege Lege-dekretuaren 1. Xedapen Gehigarria ere bai. Dekretu horrek Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko premiazko neurriak hartzen ditu Plan Nazionalaren esparruan <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-4972> Bidesarietan

eta karguetan gertatzen diren aldaketek eragina izango dute energiaren prezioan, ordukako neurketarik ez duten kontsumitzaileei aplikatzen zaien kontsumo-profilaren arabera. Profil hori 216/2014 Errege Dekretuak edo haren ordezkio xedapenak definitzen du, Espainiako Sare Elektrokoak kalkulatzeko du, eta haren webgunean ikus daiteke (www.esios.ree.es).

- Kontratu honen baldintza orokorren 11. klausulak (Aldaketa) dioena eragotzi gabe, urteko luzapenetako prezio-eguneratzeek gain, merkaturatzaileak kontratua aktibatu eta sei (6) hilabetera ere eguneratu ahal izango ditu prezioak, baita luzapena egin eta sei (6) hilabetera ere, hilabete lehenago bezeroari horren berri emanda. Jakinarazpen horretan, xehetasunez konparatuko dira aldaketaren aurreko eta ondorengo prezioak, indarrean dagoen legediaren arabera. Bezeroak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, inolako kosturik gabe.

Eguneratuz gero, prezio berria formula honen emaitza izango da gehienez ere, baina merkaturatzaileak prezio txikiagoa ere aplikatu ahal izango du.

Prezio berria = Energiaren kostua + Bidesariak + Karguak

Energiaren kostua = $((1 + \text{Perdh}) * (\text{PFA} + \text{OMIP} * \text{Apuntamendua} + \text{SAh} + \text{OCh}) * (1 + \text{TM}) / (1 - \text{TM}))$. Non:

- PERDh: Hornidurari aplikatutako sarbide-sariaren galeren ordutegi-koefizienteen batezbesteko aritmetikoa (REEk argitaratzen ditu; www.esios.ree.es), jakinarazi eta hurrengo sei hilabete naturaletarako. Neurri horri segurtasun-koefiziente gehigarri bat aplikatuko zaio, zazpi puntukoa REEren A2 eta C5 likidazioen galeren arteko aldearen arrisku-kontzeptu gisa.
- OMIP: Jakinarazpena egiten den hilabetearen ondorengo sei hilabete naturaletarako FTB M produktuen "Settlement price"-ren batezbesteko aritmetikoa, OMIPek (www.omip.pt) argitaratua. Jakinarazpena egin aurreko hilabeteko azken lanegunean argitaratutako balioak hartuko dira oinarri (ezingo dira jaiegun izan OMIPen egutegiaren arabera). Batezbesteko horri merkatuko likidezia txikiagatiko arrisku-sariaren zenbatekoa gehituko zaio, 0,008 €/kWh-ko balioarekin.
- Apuntamendua: hasierako profilen ordutegi-produktuen batura gisa kalkulatu da (REEk argitaratuko ditu; www.ree.es), jakinarazpena egiten den hilaren aurreko azken 12 hilabete naturaletako batez besteko ordutegi-prezioekin biderkatuta (OMIEk argitaratuko ditu; (www.omie.es), eta 12 hilabete horietako batez besteko prezio aritmetikoarekin zatituta. Emaitzari 0,1eko balio finkoa gehituko zaio, apuntatzeagatiko arrisku-prima gisa.

- SAh: 0,015 €/kWh gehi murrizketen batezbesteko aritmetikoa gehi balantzearen energia-zerbitzuak ("Desbideratze neurtuak" balioa izan ezik), jakinarazpena egiten den hilaren aurreko azken 12 hilabete naturalei dagozkienak (REEk argitaratuak: www.esios.ree.es). Balio horri desbideratze neurtuen balioa 0,25eko faktoreaz zatituta lortzen den emaitza gehituko zaio.
- OCh: Hornidurari lotutako beste kostu batzuk; besteak beste, honako hauek: kapazitateagatiko ordainketak, etengarritasun-zerbitzua, merkatuko operadorearen ordainsaria, sistemaren operadorearen ordainsaria eta Energia Eraginkortasunaren Estatuko Funtsari egindako ekarpenaren zenbateko bateratua. Jakinarazpena egin aurreko azken 6 hilabete naturaletako batez besteko balioak hartuko dira oinarri.
- TM: Bide publikoa okupatzeagatiko tasa, jakinarazpena egiten den unean indarrean dagoena (gaur egun, % 1,5), Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateratuaren 24.1.c) artikuluan arautua. Testu Bateratu hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartzen da.
- PFA: Parametro finko gehigarri bat, 0,034 €/kWh-ko balioarekin, eragiketa-kostu, finantza-kostu, merkaturatze-marjina eta berriztagarrien jatorri-bermeagatiko kontzeptu gisa.

Kontratua aktibatu eta sei hilabetera egin daitekeen lehenengo sei hileko prezioen berrikusketan, berrikusitako prezioa ez da inola ere 0,035 €/kWh baino gehiago igoko.

- **DESKONTUA TELEKOMUNIKAZIOETAN (MASMOVIL):** BEZEROAK 4,96 €-ko deskontua eskuratu dezake (horri zergak erantsi behar zaizkio: 6,00 € euro penintsulan, BEZa barne), eta MASMOVIL(e)k duen eta BEZEROAK aukeratzen duen telekomunikazio-produktuari aplikatuko zaio.

Deskontu hori hilabete bakoitzeko azken egunean sortuko da, eta telekomunikazio-zerbitzuen hurrengo fakturan aplikatuko da. Kasu hauetan aplikatuko da, baldin eta: i) BEZEROAK ondoren ordaintzeko telekomunikazio-zerbitzuak MASMOVIL(r)ekin kontratatuak baditu eta aukeratutako telekomunikazio-produktua aktibatua baldin badago egun horretan; eta ii) BEZEROAk ordainduak baditu une horretan daukan energia-kontratuari eta telekomunikazio-kontratuari lotutako betebeharrak guztiak.

BEZEROAK MERKATURATZAILEarekin dituen energia-kontratuak adina deskontu aplikatu ahal izango ditu bere telekomunikazio-produktuan, eta hautatutako telekomunikazio-produktuaren hileko zenbateko osoa izango da deskontu horien hileko muga. Gehiegizko deskontua ez da metatuko, ez ordainduko.

Bi kontratuen baterako indarraldian aplikatuko da deskontua. BEZEROAK MASMOVIL(r)ekin edo MERKATURATZAILEAAREKIN kontratatutako zerbitzuari baja ematen badio edozein unetan, baldintza hau indarge geldituko da bi aldeentzat, eta, beraz, ez da aplikatuko aipaturiko deskontua. Energia-kontratuari baja emanez gero, kontratua aktibo egon den hilabeteko egun-kopuruaren arabera hainbanatuz aplikatuko da deskontua.

- **ARAUTUTAKO BESTE KONTZEPTU BATZUK:**

- **Kontagailuaren alokairua:** Neurketa-ekipamendua eta neurketako gainerako osagaiak alokairu-erregimenean instalatuta badaude, alokairu horrengatik fakturatu beharreko prezioak Ministerioak unean uneko arauen arabera finkatutakoak izango dira. BEZEROAK aukera dauka enpresa banatzaileak neurketa-ekipamenduen alokairuaren truke unean-unean kobratzen dituen prezioak ikusteko (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-8561>). Prezio horiek marjina gehigarririk gabe helarazten zaizkio BEZEROARI.
- Halaber, bonu sozialaren finantzaketaren kostua jasanaraziko da, eta hori Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeko 45. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da, <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-13645>, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan, zeinak kontsumitzaile ahularen figura, bonu soziala eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen baititu, <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2017-11505>, bai eta urriaren 6ko ETU/943/2017 Aginduan ere, zeinak urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua garatzen baitu, <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2017-11532>, eta, aurrerago, 6/2022 ELDa, martxoaren 29koa, <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-4972>. Kostu hori automatikoki egokituko da, baldin eta kostu hori salbuesten edo aldatzen duen edo enpresa merkaturatzaileentzat kostua zehazteko modua aldatzen duen arau-aldaketaren bat aplikatzen bada.
- Banatzaileak zehazten ditu **araututako beste kontzeptu batzuk**, hala nola gehiegizko potentzia, erreaktiboagatiko penalizazioak, lotura-eskubideak, hedadura, eta abar, indarrean den legeriari jarraikiz. Bezeroari inolako marjina gehigarririk gabe jasanaraziko zaizkio horiek.

Kontsumitzaileari sarbide-tarifetan eragin ahal izango zaio, bidesarietan eta karguetan izaniko aldaketak indarrean jartzen diren egunetik aurrera, bai eta, oro har, administrazioak eragindako gainerako kontzeptu arautuen aldaketak, sorrerak edo ezabatzeak ere, eta ez dira hartuko kontratu honetako kontratu-baldintzen aldaketatzat.

- **ZERGA APLIKAGARRIAK, LEGEZ ESKA DAITEZKEENAK.** Legez eska daitekeen edozein zerga aplikatuko zaie prezioei, zerga indarrean badago. Kontratu hau sinatzen den unean, hauek dira zergak: batetik, elektrizitatearen gaineko zerga berezia (EGZB) eta, bestetik, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) edo Kanarietako, Ceutako eta Melillako zeharkako zerga. Zergadun prezioa aplikagarriak diren zerga-aldaketetara egokituko da, haien iraupena edozein dela ere.
 - Elektrizitatearen gaineko zerga berezia (EGZAB) kontsumorako energia elektrikoaren hornidurari aplikatzen zaio, eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 89-104 artikuluetan arautzen da. Helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1992-28741>
 - Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean arautzen da BEZa. Helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1992-28740>
 - Kanarietan IGIC delakoa aplikatuko da (Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorra). IGICa ekainaren 7ko 20/1991 Legean dago araututa, eta helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1991-14463>.
 - Ceuta eta Melillan IPSI izeneko aplikatuko da (produkzioaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zerga). IPSIa martxoaren 25eko 8/1991 Legeak arautzen du. Helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1991-7645>
- Bankuaren itzultze-gastuak, epez kanpo kobratzearen ondoriozko gastuak, ez ordaintzearen ondoriozkoak eta horien pareko kudeaketa administratiboko beste gastu batzuk BEZEROAK ordainduko ditu, ez ordaintzearen arrazoia BEZEROAK funtsik ez izatea edo BEZEROAREN borondateari egotz dakioken beste arrazoren bat denean. Beraz, ordaindu gabe dituen fakturen zenbatekoaz gain, gehienez 15,00 € gehiago ordaindu beharko ditu, zergak barne (16,50 € zergak barne), metagarriak ordaindu gabeko fakturen zenbatekoari. MERKATURATZAILEAK ez ditu kobratuko lehenengo itzulketan, BEZEROAK bankuko datuak zuzenak direla ziurtatu ahal izan dezan, behar izanez gero.
- **Energia-kontsumo maximoa:** Tarifa hau urtean gehienez 120.000 kWh-ko kontsumoetarako da. Hiru hilabetez jarraian hileko batez besteko kontsumoa 10.000 kWh-tik gorakoa bada, une horretatik aurrera indarrean dagoen tarifa indexatua aplikatu ahal izango zaio BEZEROARI.
- **AUTOKONTSUMOKO SOBERAKINEN KONPENTSAZIOA.** BEZEROAK, hala badagokio, adierazten du bere borondatez aukeratu duela energia elektrikoaren

autokontsumoaren baldintza administratibo eta tekniko guztiak betetakoan soberakinak konpentsatzen dituen autokontsumoko hornidura-modalitateari heltzea. Kasu horretan, MERKATURATZAILEAK, fakturazio-aldi bakoitzean, aldi horretako soberako energiako kWh-ak ordainduko dizkio BEZEROAri (soberako energiatzat hartzen da energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren 3.q artikuluan zehaztutakoa) OMIPen ordukako eguzki-profilaz biderkatuta, formula honen arabera:

$$TEE = \text{Soberako energiaren prezioa} \times \text{Soberako energia (kWh)}$$

Non:

$$\text{Energiaren prezioa} = PMh - DSVh$$

- PMh: Eguneko merkatuaren emaitzetatik lortutako orduaren batez besteko prezioa.
- DSV: REEk ESIOs orrian (www.esios.com) argitaratutako desbideratze neurtuen prezioa, merkaturatzailearen desbideratzearen kostu errealak zenbatesteko parametro batez zatitua (parametro horren egungo balioa 0,29 da).

Fakturazioa egiteko, enpresa banatzaileak emandako soberako ordukako energia hartuko da kontuan, indarrean den araudian ezarritakoaren arabera. Indarrean dagoen araudia aplikatuz, soberako ordukako energiaren balio ekonomikoa ezingo da izan fakturazio-aldian sareak kontsumitutako ordukako energiaren balio ekonomikoa baino handiagoa, eta fakturazio-aldi hori ezin izango da hilabete (1) baino handiagoa.

Soberako energiaren kalkulu ekonomikoari eragiten dioten osagai arautuei edo bestelako kostuei, zergei edo antzeko karguei buruzko arau-aldaketak, halakorik gertatuz gero, gardentasunez eta automatikoki jasanaraziko zaizkio BEZEROAri, eta ez dira prezio-aldaketatzat hartuko.